

Sagarra eta sagardoa

Euskaltzaindiaren

Hiztegian



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Terminologia
eta Lexikografia
Zentroa

ardatz

3 iz. Dolareetan, mahatsa edo sagarra zapaltzen duen zura gorantz eta beherantz mugitzen duen torlojua; prentsetako kideko atala. *Horiek guztiek zapaltzen eta lehertzen diotela bihotza, dolareetako edo lakoetako ardatzek sagarra edo mahatsa bezala.*

barrika

iz. Upela, bereziki 100-600 litro bitartekoa. *Laurogei barrika sagardo, bakoitza hiruna zamakoa.*

botilatu, botila/botilatu, botilatzen

1 du ad. Heg. Botilan ezarri. *Sagardoa eta txakolina botilatzekeo ilargiari erreparatzen diote.*

bukoi

iz. Barrika handia. *Mistelaren bukoiak.*

dastaketa

iz. Dastatzea. *Sagardotegietako bizimodua erakutsiz, bi dastaketa ikastaro ere eginen dituzte.*

dastatze

iz. *dastatu* aditzari dagokion ekintza. *Sagardo dastatzea.*

dolare

iz. Mahats aleak, sagarrak eta kidekoak, zukua ateratzeko, zanpatzen diren tresna; tresna hori dagoen tokia. *Sagardoa egiteko dolarea.*

erneta

iz. Ipar. Errege-sagarra. *Sagar erneta batzuk hautak. Erneta-sagarra.*

errege sagar, errege-sagar

iz. Azal berde edo arrea duen sagar mota gazi-gozoa, bere zaporeagatik oso aintzat hartua dena. *Errege sagarrak konpotan.*

garratz

1 adj. Ahoan halako laztasuna edo mintasuna sentiarazten duena. *Sagar heldugabeak garratzak ohi dira.*

gazi

4 adj. Garratza, bizia. *Sagar gaziak. Sagardo gazia*

geza

2 adj. Sagarrez eta kidekoez mintzatuz, garratza ez dena. *Sagar gezak.*

gezamin

1 adj. Gazi-geza.

2 iz. Sagar mota gazi-geza.

gezate

1 iz. Sagar mota geza.

2 adj. Sagarrez mintzatuz, geza.

gibelzorrotz

iz. Sagar mota, udarearen antzeko forma duena.

kizki

1 iz. Makila kakoduna. *Kizki batekin sagarrak osten zizkion.*

lanburda

iz. bot. Sagarrondo eta udareondoetan, muturrean pinporta handi bat duen adar txikia.

mama

1 iz. haur. Ura edo zernahi edari. *Ama, emaiizu mama umeari.*

2 iz. Edari alkoholduna, bereziki ardoa edo sagardoa. *Badiagu mama ona.*

mama goxo

iz. Edari alkoholduna, bereziki ardoa edo sagardoa, adierazteko erabiltzen den esapidea. *Upel zaharraren mama goxotik ongi bustiz eztarriak.*

mama gozo

iz. Edari alkoholduna, bereziki ardoa edo sagardoa, adierazteko erabiltzen den esapidea. *Mahatsaren orpotik dator mama gozoa.*

mikatz

adj. Mingotsa. *Behazuna baino mikatzagoa. Mikatzak dira sagar heldugabeak. Oroipen mikatzak.*

min

4 adj. Janariez eta edariez mintzatuz, garratza; mingotsa. *Sagar gezak eta minak. Behazunaren garraztasun mina. Ez baitago hori baino ozpin minagorik. || Heriotza gogor baten edari mina.*

mokote

iz. Sagar mota.

mutxikin

2 iz. Sagarretan eta udareetan, jan gabe uzten den barnealdea, haziak gordetzen dituen. *Sagarraren mutxikina lurrera bota du.*

muztio

iz. Irakin ez duen edo hartzitu ez den mahats edo sagar zukua. *Mahatsa biltzen eta muztioa egiteko zapaltzen laguntzen zien nekazariei.*

panpandoja

iz. Azal zuri-gorria duen sagar mota.

pats

iz. Sagar, mahats eta antzeko fruituetatik, sakatu ondoren gelditzen den hondarra edo hondakina. *Sagar patsa eta mahats patsa. Sagardoa ateratzeaz gainera, gelditzen zaie patsa, abereak neguan bazkatzeko.*

pisoi

iz. Dolareetan sagarra jotzeko erabiltzen den mazoa. *Pisoiarekin zapaltzen den sagarrari deitzen zaio patsa.*

pitar

1 iz. Lehen hartxiduraren hondakinez eginiko sagardoa. *Normandiako sagardoak haien aldean ez dira pitar batzuk baizik.*

2 iz. Sagardoa eta ura nahasiz eginiko edari arina.

probaketa

2 iz. Dastatzea. *Arratsaldean hasten da jendea sagardo probaketan.*

sagar

1 iz. Sagarrondoaren fruitua, biribilkara, mami sendoa eta urtsua duena eta erdi-erdian hazi txikiak dauzkana. *Bi sagar. Hiru sagar ale. Bost kilo sagar. Sagar gezak, garratzak, mikatzak. Sagarrik gorriena baino gorriagoa. Sagar umo eta gaztaina gozoak. Errezil sagarra, San Joan sagarra. Errege sagarrak konpotan. Sagar gordinak. Sagar errea eta ardo gorria.*

2 iz. Sagarrondoa. *Loretan da gure sagarra.*

sagar arbola, sagar-arbola

iz. Sagarrondoa. *Inguruan ba omen zituen bost edo sei sagar arbola.*

sagar landare, sagar-landare

iz. Sagarrondo landare gazte eta txikia, birlandatzeko egokia dena.

sagardi

iz. Sagastia. *Mahasti, sagardi eta landak ere on dute ongailu hori.*

sagardo

iz. Sagarren zukua hartzituz egiten den edari alkoholoduna. *Bi pitxer sagardo. Sagardoa egin. Sagardo motela. Sagardo-saltzaileak. Sagardo tratulariek nahi duten prezioa jartzeko. Bisigua sagardoarekin jan afaltzen.*

sagardo ozpin, sagardo-ozpin

iz. Sagardoa hartzitetik ateratzen den ozpina. *Ontzi batera bota, eta gehitu bi koilarakada sagardo ozpin eta sei koilarakada oliba olio.*

sagardogile

iz. Sagardoa egiten duen pertsona. *Gipuzkoako sagardogileen elkarte.*

sagardogintza

iz. Sagardoa egitea; sagardogilearen jarduera edo lanbidea. *Hirugarren eta laugarren belaunaldia ari dira orain sagardogintzan.*

sagardotegi

iz. Sagardoa egiten, saltzen eta edaten den etxea. *Inurritzako sagardotegi batean bazkaldu ondoren.*

sagardozale

adj. Sagardoaren oso zalea dena. *Umore handiko gizona omen zen, gaztetan behintzat, eta sagardozale amorratua.*

sagarmin

iz. Sagarrondo txertatu gabea.

sagarrondo

iz. Arrosaren familiako zuhaitza, ez oso handia, lore zuri-arrosak dituen eta fruitutzat sagarrak ematen dituen (*Malus sylvestris*). *Sagarrondo baten gerizpean hizketan. Uste genuen Gipuzkoa sagarrondoaz landatua zela guztia. Sagarrondoak lorez zurituak.*

sagartze

iz. Sagarrondoa. *Sagarra da sagartzean; erori, eta lur hotzean.*

sagasti

iz. Sagarrondoaz landaturiko saila. *Sagasti ederrak eta handiak zituen. Sagasti jabeak.*

txorten

1 iz. Hostoak eta fruituak adarrera lotzen diren kirten modukoa. *Sagarraren txortena. Hosto txorten-luzeak dituen zuhaitza. Orain bat gara biok: adarra eta txortena.*

txotx

3 iz. Upelaren zuloa ixteko ziria. *Upelari txotxa kendu.*

upa

iz. bizk. Upela. *Upa baten barruan sarturik salbatu zela zioten. Atea zabalik ikusten dute, barrua upa baino beltzago eta dena isil-isilik.*

upagin

iz. bizk. Upelgilea.

upategi

iz. Upeltegia. *Jendeak nahi duena esango du, baina, ardo kontuetan, upategi klasikoak nahiago.*

upel

1 iz. Zurezko xafla ganbilak uztaiez batuz eginiko ontzi handia, batez ere 1.000 litrotik gorakoa, bi buruak oholez estaliak dituena eta ardoa, sagardoa eta kidekoak gordetzeko edo garraiatzeko erabiltzen dena. *Sagardotegian, upelaren ondoan.*

upeleratu, upelera/upeleratu, upeleratzen

du ad. Ardoa, sagardoa edo beste zenbait likido upelean bota. *Garia jaso eta ardoa upeleratu ondoren.*

upelgile

iz. Upelak egiten dituen eskulangilea. *Arotzek eta upelgileek ere pozik hartzen dute tuiaren zura.*

upelgintza

iz. Upelgilearen lanbidea; upelak egitea. *Haritzaren zura oso preziatua da, eta zurgintzan, upelgintzan eta ontzigintzan erabiltzen da.*

upeltegi

iz. Ardoa, sagardoa eta kidekoak upeletan gorderik dauden tokia edo biltegia. *Gertatzen da beste askotan, upeltegian dauzkagun ardo on guztiak galtzea.*

zanpatu, zanpa, zanpatzen

1 du ad. gip. Zapaldu. *Sagarra dolarean zanpatu.*

zipotz

1 iz. Upelaren zuloa ixteko erabiltzen den ziria. *Zipotza behin kendu eta orduan ligak agertu.*

zizar

iz. Irakin ez duen sagar zukua. *Joan ziren betiko, zizarra eta pitarra ez ezik, barrika gustuko sagardo erdi ozpindu haiek ere.*

zuztar


3 iz. Sagarretan eta udareetan, jan gabe uzten den barnealdea, haziak gordetzen dituen. *Sagar zuztar batetik ere hatz markak atera al daitezke?*

Eguneratze-data: 2024-01-22



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Terminologia
eta Lexikografia
Zentroa